

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Zabalik da udal musika eskolen funtzionamendurako laguntzak eskatzeko epea

*Proposamenak apirilaren 18ra arte, astelehena, aurkeztu ahal izango dira*

Viernes, 01 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, aurten, 2.200.000 euroren diru-laguntza emango du udal musika eskolen mantentze lanen eta funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko. Eskaerak gaurtik hasita apirilaren 18ra arte, astelehena, aurkeztu ahal izango dira, biak barne.

Joan den matxoaren 23an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen [deialdian](#) adierazitakoaren arabera, diru-laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte toki administrazioek eta horiei lotuta edo horien mendekoak diren eta Foru Erkidegoko musika eskoletako titularrek, betiere Hezkuntza Departamentuaren Musika eta Dantza Eskolen erregistro berezian izena emanda badaude.

Ikastetxe bakoitzari diru-laguntzak emateko kontuan hartuko dute pasa den ikasturtean ikastetxe horretan ikasi ondoren oraingo ikasturtean estatuko ikastetxeetan Lanbide Hezkuntzako edo Goi Mailako Hezkuntzako musika ikasketak egiten ari diren ikasle kopurua (ikasle bakoitzeko 1.200 euro eta guztira, gehienez, 100.000 euro). Ikastetxe bakoitzak jasoko duen zenbatekoa guztira ez da izango 2010ean eskolaren erakunde titularrak jasotako kopurua baino handiagoa, ezta eskolak, aurten, dituen gastuen hasierako aurrekontuaren % 33 baino handiagoa ere. Dena batera, guztira, 100.000 euro baino gehiago izanez gero, gehienezko zenbateko hori proportzionalki zatituko da ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean. Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolak ez du halakorik bete beharko Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmen berezi bat eginda duelako.

Diru-laguntzaren jasotzen duten erakundeek eskaera eta eskatzen diren agiriak (ikasleen zerrenda, 2010ean gauzatutako aurrekontua, ikasturte honetarako tarifak, etab.) aurkeztu beharko dituzte Irakaskuntza Artistikoen Atalean, Nafarroako Gobernuaren Erregistrora bidalita, Hezkuntza Departamentura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren 30/1992 Legean ezarritako bulegoren batera edo erregistro elektronikoen bidez.